

## HOBARIAK ESKATZEKO DEIALDIA

### ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ETA HONDAKINEN KUDEAKETAREN TASA

2025ko urtarrilaren 24ko erabakia dela medio, Zaldibiako Udaleko alkate jaunak, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren eta Hondakinen Kudeaketaren Tasaren hobariak eskatzeko prozesuari hasiera eman zaio

#### ERABAKIA

“Ioritz Berra Juaristi, Zaldibiako Udaleko alkateak, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85ko Legeko 21.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, ERABAKI DUT:

**Lehena**.-Indarrean dauden 2025eko Ordenantza fiskalei jarraikiz, ondoren adierazitako bi tributuen hobariak eskatzeko prozesuari hasiera ematea:

- OHZ -Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga- (2025)
- Hondakinen kudeaketaren tasa (2025)

**Bigarrena**.-Hobariak honako irizpideen eta hurrenkeraren arabera onartuko dira:

**A) OHZ -Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga-:** Urteko hobarria ezingo da izan 200 eurotik gorakoa

1. Eguzki energia aprobetxatzeko sistema instalatuta izateagatik:

Subjetu pasiboek (eskatzailleek) Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren (OHZ) %50eko hobarria eragin ahalko dute, bai bizitegi-erabilerako higiezinetan, bai bizitegi-erabilerakoak ez diren higiezinetan, instalazioa organo eskudunaren erregistroan inskribatzen den egunaren ondorengo lau zergaldietan.

2. Diru-sarreraren arabeko hobarria (familia unitateak): 2.2. atalean zehaztutako irizpideak hartuko dira kontuan, eta subjektu pasiboek (eskatzailleek) gehienez ere %90eko hobarria izango dute zergaren kuotan.

2.1. Hobaria aitortzeko honako baldintzak bete beharko dira:

- a) Eskaera egiten duen jabearen ohiko etxebizitzaren helbidea eta hobaria eskatzen den zerga-helbidea bat etorri beharko dira.
- b) Etxebizitzak 180.000 euro edo gutxiagoko balio katastrala izan beharko du.
- c) Eskatzailea ezingo da izan etxebizitza erabilera duen beste ondasun higiezin baten jabe, baldin eta ez baldin bada garajea, trastelekua edo eskatzailearen beraren jarduera profesionalaren lokala.

2.2. Familia unitateen diru-sarreraren arabera hobariak

Elkarbizitza unitateko kideak	LGS edo $\leq$	LGS + %10 arte	LGS + %20 arte	LGS + %30 arte	LGS + %40 arte	LGS + %50 arte
1-2	%90	%75	%50	%25	-----	-----
3	%90	%90	%75	%50	%25	-----
4	%95	%95	%90	%75	%50	%25
5 edo +	%95	%95	%95	%90	%75	%50

LGS -Lanbide Arteko gutxieneko Soldata

**B) Hondakinen tasaren hobaria:** Birziklatzeagatik lortutako hobariak beheko taulan adierazitako koefizienteengatik biderketako dira, familiako diru-sarreraren arabera:

Elkarbizitza unitateko kideak	LGS EDO $\leq$ %10	LGS + %20	LGS + %30	LGS + %50
1-3	x 1,7	x 1,6	x 1,5	x 1,4
4 edo gehiago	x 2	x 1,9	x 1,8	x 1,7

LGS -Lanbide Arteko gutxieneko Soldata

**Hirugarrena.** Honako dokumentazioa aurkeztuko da hobari eskaerarekin batera:

- **Enpresak:** Instalazioa organo eskudunaren erregistroan inskribatuta egotearen agiria.
- **Familia unitateak:**
  - a) **Errolda agiria** (ez da aurkeztu behar, Udalak begiratuko du)
  - b) **Zinpeko aitortpena,** Ondasun higiezinaren jabea etxebizitza erabilera duen beste ondasun higiezin baten jabe ez izatearena, baldin eta ez baldin bada garajea, trastelekua edo eskatzailearen beraren jarduera profesionalaren lokala.

- c) **Diru-sarrereren ziurtagiria**, dagokion erakunde ofizialak egindakoa :
- Errenta aitorpena, eskatzailearena eta adinez nagusi diren familia unitateko kide guztiena
  - Pentsioen urteko egiaztagiria edo bestelako diru-sarrerena
- d) **Errenta aitorpena egiteko derrigortasunik ez** izatearen egiaztagiria, Gipuzkoako Foru Ogasunak egindakoa, adinez nagusi diren familia unitateko kide guztiena.
- e) Eguzki energia aprobetxatzeko instalakuntzagatik Ondasun Higiezinaren Zergan hobaria eskatu dutenek: **Instalazioa organo eskudunaren erregistroan inskribatuta egotearen agiria.**

**Laugarrena.**- Eskerak aurkezteko epea 2025eko urtarrilaren 28tik 2025eko otsailaren 11ra bitartekoa izango da.

Eskerak egiteko, web-orrian jarritako inprimakia erabiliko da, eta osatu ondoren Udalaren erregistro orokorrean aurkeztutako da, egoitza elektronikoan edo aurrez aurre. Era berean, eskaerarekin batera alkate dekretuan adierazitako agiriak aurkeztuko dira.

Zaldibian, 2025eko urtarrilaren 24an. Alkatea. Ioritz Berri Juaristi”